

# Jurisprudenzia islamikoaren garapena IX. mendeko Al Andalusen: maliki eskolaren sorrera eta omeiatarren legezkotasun-diskurtsoarekiko harremana<sup>1</sup>

Eneko López Martínez de Marigorta

*Prestakuntzan dagoen JAE Programako ikerlaria*  
(CCHS-CSIC)

eneko.lopez@cchs.csic.com



**Laburpena:** Emirerri andalustarraren IX. mendeko testuinguru soziopolitikoaz aztertzeko orduan, historiografia tradizionalak azpimarratu zuen mālikī eskola juridikoak Iberiar Penintsulan izandako presentzia. Dena den, azkenaldian gauzatzen ari den iturri idatzien berrirakurketak paradigma historiografiko horri ekarpen nabariak egiteko aukera eskaini du. Jarraian,

---

<sup>1</sup> Artikulu hau “Ikerlari Gazteen II. Jardunaldia: Diskurtso politikoak eta zilegitasuna historian” deritzon jardunaldian burututako hitzalditik eratu izan da; hizketaldia Bergaran, 2009ko apirilaren 25ean, izan zen. Bergarako Udalaren laguntza jaso zuen jardunaldi honen antolatzaileei, Mikel Pozo Flores-i batik bat, eskerrik beroenak eman nahi dizkiet nire parte-hartzea posible egin izanagatik.

**interpretazio berriaren nondik norakoa azalduko da, aurreko planteamendua erakustearekin batera.**

***Abstract:* When the socio-political context of the Andalusian emirate in 9<sup>th</sup> century is analysed, the traditional historiography emphasizes the presence of the mālikī juridical school in the Iberian Peninsula. However, lately the rereading of the written sources is making possible the appearance of important contributions to this historiographic paradigm. The article will explain the new interpretation, after showing the old one.**

## Sarrera

Lan honen helburua da ikertzea jurisprudentziak IX. mendean zehar Iberiar Penintsula musulmanean jasandako bilakaera. Horretarako, iturri idatzien zuzeneko azterketara jo baino gehiago ekoizpen historiografikoaz baliatu gara, azken urteotan aurrera eramandako arlo honetako ikerkuntzen sintesi baten beharra sumatzen genuen heinean.

Hiru ataletan banatu dugu artikulua: lehenbizikoz, Goi Erdi Aroko zuzenbide islamikoa definituko dugu, Al Andalusen konkretuki jasotako moldeari arreta berezia zuzenduz; ondoren, IX. mendean mālikī eskola juridikoak emirerri omeiatarrean izandako garrantziaren inguruan arituko gara, honi buruzko interpretazio tradizionala sakonki ikertu dugula; azkenik, aipatutako paradigmatik aparte arestian gauzatutako lanei so egingo diegu, jurisprudentzia andalustarrari dagokionez garatzen doan ikuspegi berria aditzera emanez.

Arlo juridikoa betiere omeiatarren legezkotasun-diskurtsoarekin erlazionatu dugu. Izan ere, dinastia arabiar hori, hein batean, juristoz baliatu zen bere zilegitasun propioa eratzeko orduan. Dena den, historiografia tradizionalak eta duela gutxiko berrirakurketek modu ezberdinean interpretatu zuten subiranoaren eta legelarien arteko erlazioa, diferentzia horiek zein diren argitzeko ahalegina egingo dugula.

Lanaren erroa azken hamarkadetako ekarpen berriek osatu dute, hirugarren atalak, alegia. Hori dela-eta, zenbait emiralditan banatu dugu mendea, emir bakoitzaren agintaldiak testuinguru soziopolitikoaren garapen-une bati erantzuna emango ziolakoan. Errealitatearen nolabaiteko abstrakzioa bazen ere, aipatutako banaketa kronologikoa ezinbestekoa izan da eskola juridiko musulmanen eratze-prozesua aztertzeko. Hain zuzen, gizarte andalustarraren belaunaldi bat edo bi hezi ziren bitarte bakoitzean. IX. mendearen bigarren erdialdea, nolahi ere, epealdi bakar bat balitz bezala ikertua izan da. Interpretazio historiografiko berriak garai horretan kokatzen du mālikī eskolaren egituraketa eta zilegi ikusi dugu tarte hori konplexutasun handiagoz ikertzea.

### **I- Zuzenbide islamikoaren sarrera Iberiar Penintsula musulmanean**

VIII. mendearen erdialdean, Al Andalus *Dār al-Islāme*ko edo lurralde musulmaneko periferian kokatuta zegoen. Penintsularen konkista 711n martxan jarri zen, eta ordutik aurrera Damaskoko kaliferriaren kontrol zuzenean geratu zen. Dependentsia horren isla eskualdeko gobernaria izango litzateke, zeina omeiatarren ordezkari gisa arituko baitzen.

Konkistatzaileei dagokienez, gutxiengo arabiarrek agintzen zuen soldadu berbereen gainean, zeinek armada musulmanaren erroa osatzen baitzuten Al Andalusen.

Elite arabiarra zenbait presio-taldetan banatuta zegoen, eta horietako bakoitzak penintsulako gobernatzaile izateko hautagai propioa bultzatu ohi zuen. Hori dela-eta, ezegonkortasun soziopolitikoak epealdi horretako ikur nabarmenetako bat daukagu, liskarrak arruntak baitziren haien artean. Ikus daitekeenez, Damaskoko gobernuaren presentzia teorikoa bigarren maila batean utzi beharra zegoen, leinu omeiatarrek kasu gehienetan Iberiar Penintsulan jada aukeratutako gobernariak berresten zituela<sup>2</sup>.

Al Andaluseko lurraldeak konkistatzaileen menpe zeuden, horietako bakoitza *yund* edo unitate militar batek antolatzen zuela<sup>3</sup>. Nolanahi ere, biztanleria andalustarraren gehiengoak jatorri indigena zeukan, hots, musulmanak heldu aurretiko gizartearen ondorengoak ziren. Hasiera batean, beraz, ongi definitutako honako bi multzo horiek aurki genitzake: musulmanak alde batetik eta, bestetik, indigenak.

### ***I.1.-Abd ar Rahman I.aren erreformak***

Dinastia omeiatarra 750ean desagerrarazi zuten abbasiek. Dena den, leinuko kide batek Damaskoko jazarpenetik ihes egitea lortu eta kaliferriaren mendebaldeko mugara heldu zen zenbait senide eta *mawālī*ekin<sup>4</sup> batera. Bertan, Kordobara, Iberiar Penintsula musulmaneko hiriburura, heldu zen 756. urtean, eta bere burua Abd ar Rahman I.a (756-788) bezala aldarrikatu zuen. Hain zuzen ere, eskualdean aurkitutako ezegonkortasunaz probestu zen boterean jartzeko, presio-taldeen interesak han-hemenka maneiatuz<sup>5</sup>. Al Andalus, horrenbestez, Bagdadeko kaliferriarekiko emirerri independente bihurtu zen. Era berean, agintari berriak *ibn al-jalā'if* titulua bereganatu zuen, kalifen semea izatea, alegia. Garai horretan, eskualde bateko gobernari soil bat baino zerbait gehiago ordezkatzearen diskurtsoa hastapenetan zegoen<sup>6</sup>.

Emirraldia hasi eta berehala, Abd ar Rahman I.ak administrazio konplexuagoa gorpuztu zuen, horren abian presio fiskala igotzeko premia eduki zuela. Are gehiago, zonetako unitate militarrek modu zentralizatu batean kontrolatu zituen. Peraan, berberek eta esklaboz hornitutako armada iraunkorra eratu zuen, zeinak presio-talde arabiarrekiko independentzia ziurtatuko zion<sup>7</sup>.

<sup>2</sup> Chalmeta (1990: 98-101).

<sup>3</sup> Manzano (1993: 330).

<sup>4</sup> Maïllo (1999: 152-153). Oro har, *mawlā* (pl. *mawālī*) deritzon pertsona hauxe da: odolez familia arabiar bateko kide ez bada ere, juridikoki familiaren barnean kokatu beharke genduke. Aurretik, ezinbestekoa litzateke sendi horren esklabo izatea, jabeak askapena ematean *walā'* edo klientela-harremana ere eskain ziezaiokeela. Modu horretan, jabearen familiaren parte izatera igaroko zen. Leinu boteretsuenek, bada, klientez osatutako sare trinkoa izan ohi zuten.

<sup>5</sup> Manzano (1993: 338).

<sup>6</sup> Meouak (1999: 12).

<sup>7</sup> Guichard (1995: 38).

Gobernatzaile omeiatarrek aurrera eramandako beste aldaketa garrantzitsuenetako bat arlo judizialean<sup>8</sup> heldu zen: *qādī al-ʿyund* epaile kargua *qādī al-ʿyamāʿak* ordezkatu zuen. Ordura arte unitate militar edo *ʿyund* bakoitzeko epaile bat zegoen, penintsulako biztanle indigenek euren erakunde judizialak mantentzen zituztela. Aurrerantzean, hiriei atxikiko zitzaien *qādī* bana, bertako komunitate musulmanaren epaile bihurtuz<sup>9</sup>. Hori dela medio, giro hiritarrear gero eta ohikoagoak ziren indigena musulmanak epaitzeko mugak ezabatu zituzten, eta arabiar eta berberekkin batera epai zitezkeela.

## ***1.2.-Zuzenbide musulmanaren egituraketa<sup>10</sup>***

Damaskoko kaliferriak iraun zuen bitartean, 750. hamarkada arte hain zuzen, justizia aplikatzerakoan irizpide nahiko arbitrarioak erabiltzen ziren. Islamaren mezua zabaldu aurreko tradizioek presentzia handia mantentzen zuten, eta konkistatutako eskualdeetan elite arabiarrek bere eskumen zabalak mantentzearen alde egiten zuten. Horrenbestez, Koranean islatzen zen pentsamoldea ez zen *de facto* gizartea antolatzen zuena, teorikoki horrela izanda ere. Abbasien altxamendua testuinguru horretan kokatu beharra dago, Bagdadeko kaliferria aldarrikatu ostean moral islamikoan oinarritutako gorputz juridikoa eratzeari ekin ziotela<sup>11</sup>. Al Andalusen ikusi dugun bezala, zentzu horretan burututako erreformek komunitate musulman osoa ordezkatuko zuketena erakundearen garapenean sakontzea posible egiten zuten.

Zuzenbide islamikoari *šarīʿa* izena eman zitzaion arabiarrez, erabaki judizialak hartzeko orduan epaileek bost iturri juridikori men egingo ziotela. Aipatutako iturrien hierarkizazioa, ordea, IX. mendean zehar gauzatu zen, ordura arteko praktikak askoz heterodoxoagoak izaki. Zuzenbiderako baliabideen mailaketan goiko tokian aurkituko genuke Korana, musulman ororentzat liburu sakratua zatekeena. Jarraian, *sunnak* erabateko garrantzia izango zukeen, Mahomak eta bere hasierako jarraitzaileek esan eta egindakoak. Hirugarren lekuan *iʿmāʿ* edo adostasuna egongo zen, hau da, gorputz juridikoan adituak direnen arteko adostasuna. Bestetik, *qiyās* ‘analogia’ ere zerabilten. Bukatzeko, *raʿya* zen musulmanek zeukaten bosgarren baliabidea, arrazoia erabiltzean sortutako iritzi pertsonala, alegia<sup>12</sup>.

<sup>8</sup> Mundu musulmanean botere-banaketa honakoa litzateke: alde batetik, botere legegilea legoke, zeina teorikoki Jainkoak zeukan Koranean hark aipatutakoaren bitartez (Maillo, 1999: 214), Korana musulmanentzat Jainkoak hitzez hitz Mahomari esandakoa baitzen; bestetik, botere betearazlea emirrak betetzen zuen; eta, azkenik, botere judiziala aurki genezakeen, zeina emirrak epailearen esku uzten zuen, hau da, *qādī*aren esku (Martos, 2008: 434).

<sup>9</sup> Chalmeta (1990: 103).

<sup>10</sup> Zuzenbide musulmanean gehiago sakondu nahi izanez gero, Martos-en (2004: 69-88) artikulua irakurtzea gomendagarria litzateke.

<sup>11</sup> Martos (2008: 436-437).

<sup>12</sup> a.l. 434. or.

Hala eta guztiz ere, *šarī'a* kontzeptu abstraktua izanik, zuzenbide islamikoaren praktika konkretua definitzeko hutsunea geratzen zen. Hutsune hori betetzeko sortu zen *fiqh* hitza, zeinak garatzen doan jurisprudenzia musulmana deskribatzen baitzuen. Izan ere, botere legegilea Jainkoak Koranean esandakoarekin osatzea gabezia nabariak erakusten zituen, giza bizitzako alderdi oro ez baitzeuden liburu sakratuan araututa. Hori dela medio, zuzenbide islamikoan adituak zirenak kasuan kasuko praktika juridikoa eratzen joan ziren<sup>13</sup>.

Arlo teologiko-juridikoko adituei so eginez gero, ulema<sup>14</sup> edo alfaqui<sup>15</sup> esaten zitzairen. Pertsona haien eginkizun nabarmenena fetuak egitea zen, zeintzuk *fiqha* erabiliz galdera konkretuei emandako erantzunak izango baitziren. Nolanahi ere, gomendio moduan aditu batek egindako ekarpena zen, epaiketetatik guztiz aparte. Ondorioz, fetuaren eragina hura burutu izan zuen alfaquiaren prestigio moralaren araberkoa litzateke<sup>16</sup>.

Ulemaren lan-esparrua ez zen derrigorrez arlo judizialek erabat banandua egon behar. Hain zuzen ere, hiri bakoitzean *qādī* edo epaile bat zegoela esana dugu. Subiranoak zuzenki hautatuko kargua izaki, epaileak ez zuen gorputz juridikoari buruzko ezagutza berezirik eduki behar. Jurisprudenziaren inguruko ezjakintasuna alfaquiek ebazten zuten, *qādī*ak aholkulari bezala bi eta lau ulema artean izan ohi zituztela beren *šūrā* edo kontseiluan. Aipatutako alfaquiei buruz aritzeko, *mušāwar* (pl. *mušāwarūn*) izendapena zerabilten. Hortaz, giro hiritarrean, hots, batik bat artisau, merkatari edo administrazioko langileak bizi ziren testuinguruan, alfaquiek betebeharrak soziopolitiko garrantzitsuak zuten.

Mekarako erromesaldia musulman guztiek bizitzan behin gauzatu behar duten bidaia da. Ulemek joan-etorria aprobetxatu ohi zuten bidean aurkitutako jurisprudenziako maisuekin ikasteko, tokian tokiko adituenek klaseak meskitan ematen zituztela. Al Andaluseko alfaquiek, kasu gehienetan, gaztaroan egiten zuten bidaia litzateke: Iberiar Penintsula musulmanean bertako juristekin hainbat urte egon ondoren, hiri sakraturainoko ibilaldia gauzaten zuten Afrika iparraldean zehar. Hainbat urtetako egonaldia bukatutakoan, *Dār al-Islām*eko mendebaldeko muga ordezkatzeko zuten omeiatarren emirerrira itzuliko ziren, jurista, administrazioko langile edo maisu aritzeko xedearrekin<sup>17</sup>. Alfaqui bakoitzak eskola juridiko edo *madhab* konkretu batekoa izateko beharra omen zeukan, lau aipagarrienak hanafī, mālikī, šāfī'ī eta hanbalī eskolak

<sup>13</sup> Martos (2004: 72-73).

<sup>14</sup> Marín-en (1997: 151-152) aburuz, '*ālim* (pl. '*ulamā*') jakintsua dena litzateke, hots, jakinduria daukana.

<sup>15</sup> Maillou-k (1999: 25) dioenez, *faqīh*-ekin (pl. *fuqahā*) jurista edo lege erlijiosoan espezialista dena adieraziko zen.

<sup>16</sup> Martos (2004: 84).

<sup>17</sup> Gizarte andalustarrean ulemek betetzen zuten eginkizunari buruz gehiago jakin nahi izanez gero, Martos-ek (1996: 127-143) aztertu du gaia.

izanik<sup>18</sup>. Korana eta *sunna* denek onartutako iturriak zirenez, desberdintasuna beste hiru baliabide juridikoen artean emandako lehentasunari zegokion.

## II- Errebaleko errebolta eta jurisprudenzia andalustarrari buruzko interpretazio zaharra

Omeiatarren peko emirerriaren eta mālikī eskolaren arteko harremanak aztertzeko orduan, historiografia tradizionala IX. mendearen lehen herenean suertatutako gertaera politiko batean oinarritu zen: errebaleko erreboltan. Hain zuzen ere, matxinada horren azalpena ardatz moduan erabilia izan zen mende horretako testuinguru soziopolitikoaren interpretatzeko orduan.

### II.1.-R. Dozy eta É. Lévi-Provençal. Paradigmaren sorrera

XIX. mendearen erdialdetik aurrera, errebaleko erreboltaren inguruko interpretazio bat zabaldu zen historialarien artean, zeinaren hedapenean Reinhart Dozy eta Évariste Lévi-Provençal ikertzaileek berebiziko garrantzia eduki zuten. Haien arabera, Saqunda Kordobako auzo edo errebal populatuena litzateke IX. mendearen atarian. Bertan, artisau eta merkataritza anitz bizi ziren, erlijioari dagokionez, kristauak eta, batik bat, musulman bihurtutako indigenak. Era berean, Kordobako meskita nagusitik eta emirren jauregitik oso hurbil zegoenez, hainbat alfaqui ere bizi ziren inguruan. Ulema horiek mālikī eskola juridikoa ordezkatzeko zuten Al Andalusen<sup>19</sup>.

Hišām I.a (788-796) bigarren emirra zenean, Mālik b. Anas juristen jarraitzaileak ugariak ziren Iberiar Penintsula musulmanean. Izan ere, Yahyà b. Yahyà alfaqui andalustarra Medinara abiatu zen, bere maisuaren egoitzara, harengandik ikasitakoak emirri omeiatarra ekarri. Honenbestez, «los faquíes, unidos en estrecha alianza por el nuevo lazo de la doctrina de Malic, eran ya una potencia en el Estado, con la que había que contar»<sup>20</sup>, jurisprudenzia islamikoan adituak zirenek giro hiritarrean influentzia nabaria baitzuten.

IX. mendearen hastapenetan, Al Hakam I.a (796-822) zegoen gobernatzen Iberia Penintsula musulmanean. Bere aitarekin konparatuta, zeinak mālikismoarekiko jarrera irekia baitzeukan, semeak ulemekin harreman okerrak izan zituen: emir berriak alfaquien presentzia soziopolitiko mugatu nahi zuen. Hori dela-eta, Māliken jarraitzaileek Al Hakam I.a-aren kontrako mintzaldiak egiteari ekin zioten, soldaduen

---

<sup>18</sup> Maíllo (1999: 141-142).

<sup>19</sup> Lévi-Provençal (1957: 106-107).

<sup>20</sup> Dozy (1982: 61).

kopurua Al Andalusera kanpotik ekarritako esklabo ez musulmanekin igo egin zela salatzen. Are gehiago, emirrari alkohola edaten zuela egotzi zioten<sup>21</sup>.

Gerragizonen zenbatekoa hein batean igo izanak presio fiskalaren gorakada zekarren batera, ortodoxia islamikotik at zeuden zergak jasotzeko ordezkari kristaua ezarri zuela emirrak. Hortaz, errebeleko populazioa, non *'amma* 'herri xumea' bizi zen batez ere, zeharo identifikatzen zen ulemen diskurtsoarekin. Azkenik, 818. urtean erreboltari hasiera eman zitzaion, Yahyà b. Yahyà eta bere taldekideen proposamenei adituz.

Matxino multzoa, artisau eta merkatariz osatuta zegoena, Al Hakam I.a hilarazteko zorian egon zen. Gauzak horrela, emir omeiatarrak aurrera eramanez errepresio oso bortitza izan zen, errebala erabat suntsituz. Gainera, biziraun zuten auzoko biztanleei Al Andalusetik joan zitezkeen gomendatu zien<sup>22</sup>. Hala eta guztiz ere, ulema gehienei barkamena eskaini zien agintari andalustarrak, Yahyà tartean zegoela. Ordutik aurrera, «el malikismo fué el único “rito” (*madhab*) oficialmente aceptado en el reino cordobés, y los alfaquíes de al-Andalus... se erigieron en vigilantes custodios de este monopolio doctrinal»<sup>23</sup>. Omeiatarrak behin betiko konturatu ziren ulemen-bermea ezinbestekoa zutela gizarte-kohesioa ziurtatzeko orduan, eta emirra juristok administrazioan integratzen saiatu zen. Abd ar Rahman II.aren garaian (822-852), esate baterako, Yahyà epaile guztiak aukeratzen zituen, subiranoak baino gehiago agintzen zuela hainbat arlotan<sup>24</sup>.

## ***II.2.-Ikerketen espezializatzea, paradigmen iraupena***

Aipatutako historialari nederlandarrak eta frantsesak Al Andaluseko bilakaeraren azterketetan gehien iraun duen paradigma historiografikoetako bat ezarri zuten. XX. mendearen erdialdean, oster, ikertzaile berriak agertu ziren alderdi hau lantzeko. Besteak beste, Hussain Monès aipa genezake, zeinak azpimarratzen zuen ulemek eskaintzen ziotela emirrari agintzeko legitimitate erlijiosoak. Omeiatarren eta alfaquien artean, bada, aliantza sendoa sortu zen errebeleko matxinadaren ondoren. *Dār al-Islām*aren barruan, Al Andalusek errealitate soziopolitiko berezia balu bezala aztertu zuen, *mušāwarūnen* kontseilua Iberiar Penintsulan soilik sortutako erakundea zelakoan. Epaileen erabakietan lagungarri izateaz gain, alfaqui hauek botere exekutiboan nolabaiteko presentzia omen zeukaten, emirraren aholkulari moduan<sup>25</sup>.

Historialari egiptoarraren aburuz, omeiatarren izan ziren mālīkismoa hedatu zutenak emirerri andalustarreen barrena. Horrenbestez, Al Andaluseko biztanleek

<sup>21</sup> a.l. 68. or.

<sup>22</sup> Lévi-Provençal (1957: 108-109).

<sup>23</sup> Lévi-Provençal (1965: 305).

<sup>24</sup> Dozy (1982: 82-83).

<sup>25</sup> Monès (1964: 56-58).



*madhab* honekiko lehentasuna hura eskola ofizial bihurtu ostean hartuko zuketzen. Dozy eta Lévi-Provençal-ek ere antzeko planteamendua egin zuten<sup>26</sup>. Beste alde batetik, Hady Roger Idris ikertzaileak giro hiritarrean jarri zuen arreta, non bertako artisau eta merkatariak Māliken lehen jarraitzaile moduan identifikatu zituen. Jarraian, emirerriak onartuko zukeen mālikismoa, baina betiere zentzu honetan gertatu zela<sup>27</sup>. Oinarrian, dena den, bai lehenengo jarreraren aldekoek bai bigarrenaren defendatzaileek interpretazio bera egin zuten: IX. mendean zehar mālikī *madhaba* Al Andaluseko emirerri omeiatarreko doktrina ofizialtzat hartu zen, beste eskola juridikoen papera bigarren mailan edo existentzia ezan geratuz.

Paradigmatik kanpo egon bazeuden beste zenbait proposamen, hala nola Jorge Aguadé luzatutakoa. Haren esanetan, mālikismoak Iberiar Penintsula musulmanean erakutsitako parte-hartze juridikoa ez zen ordura arte historiografiak adierazi bezainbestekoa izango<sup>28</sup>. Interpretazio zaharra oraindik osatu gabe zegoen urteetan, beste zentzu batean zihoazen ikerketak ere burutu ziren. José López Ortizek, hain zuzen, mālikismo andalustarra errebolteko erreboltearen garaian eratu gabe zegoela ziurtatu zuen 1930ean<sup>29</sup>, azkenaldian Maribel Fierrok plazaratu dituen planteamenduen aitzindaria izanez. Haien ustez, IX. mendearen bigarren erdialdean *ahl al-ra'yen* eta *ahl al-hadīten* artean suertatutako liskarren ondorioa litzateke Māliken irakaspenak eskola juridiko moduan antolatu izana.

### III- Interpretazio berri baten bidean

Mālikismoa IX. mendean zehar Al Andaluseko doktrina ofiziala zenaren ikuspegia gaur egunera arte heldu da. Hala eta guztiz ere, azken urteetan gauzatutako hainbat lan historiografikok ñabardura handiak eskaini dizkiote aipatutako planteamenduari. Izan ere, mende horretako jurisprudenzia andalustarraren inguruko berrinterpretazio zabala egiten ari da, aurreko paradigma alde batean utziz. Jarraian, horrelako berrikuntzak aipatzen saiatuko gara, IX. mendearen bilakaera doan heinean.

Hasteko, Hišām I.aren emirraldia aditzera eman beharko litzateke, garai hartan abbasien kaliferriak Abū Hanīfaren proposamen juridikoak integratu baitzituen bere antolaketa administratiboan. Omeiatarren etsaiak ulema hauekin aliatu izanak erabat zailtzen zuen emirerri andalustarra Hanīfaren jarraitzaileen entzule izan zedin<sup>30</sup>.

#### III.1.- Al Hakam I.a (796-822). Errebolten garaia

<sup>26</sup> Martos (2008: 439).

<sup>27</sup> Fierro (1997: 270).

<sup>28</sup> Aguadé (1986: 54-57).

<sup>29</sup> López Ortiz (1930: 16-26).

<sup>30</sup> Fierro (1997: 336).

Kordobako hirugarren emirrak hainbat matxinadari aurre egin behar izan zien, hura boteretik kentzeko saiakerak izaki. Horietako garrantzitsuena, errebaleko erreboltaz aparte, 805ean suertatutako konspirazioa izan zen. Izan ere, gortesau talde bat Al Hakam I.aren ordeztu haren lehengusua ezartzen saiatu zen, emir berriak presio-talde horren interesak hobeto defendatuko zituelakoan. Hišām I.aren semeak, dena den, iruzurra ezagutu eta saiakeraren antolatzaileak zigortu egin zituen<sup>31</sup>. Parte-hartzaileen artean zenbait alfaqui ere bazeuden, eta emirrak Yahyà b. Mudar erail zuen<sup>32</sup>. Ulema horren ikaslea zen Yahyà b. Yahyà jurista<sup>33</sup>, Dozy eta Lévi-Provençal-en planteamenduak azaltzean aipatu dugun bera, alegia. M. Fierrok dioenez, azken alfaqui hori ez zen 818ko erreboltaren bultzatzailea izango. Horren ordeztu, 805eko azpikerietan parte hartu izana proposatzen du filologo espainiarrak<sup>34</sup>.

Yahyà b. Yahyà al Laytī (848an hila)<sup>35</sup> soldadu berberezt hornitutako familia bateko kidea izan zen. Nolanahi ere, juridikoki arabiarizat har zitekeen, *mawlà* baitzen: haren arbasoek Banū Layt klan arabiarrekin klientela-harremana adostuta zuten<sup>36</sup>. IX. mendearen lehen erdialdean, ulema gehienek konkistatzaileen leinukoak eta *mawālī*ak izaten jarraitzen zuten<sup>37</sup>, omeiatarrekin nolabaiteko harremana zutenak. Yahyàren kasuari so eginez gero, bere aita Abd ar Rahmān I.aren zerbitzupean egon zen, zeinaren ziozt Sidonia eta Algeciraseko gobernari izatera heldu baitzen<sup>38</sup>.

Aipatutako ulema bere ahaideen artean aitzindaria izan zen jurisprudentiaren ikasketetan barneratzen, haien gertari funtzioa alde batera utziz<sup>39</sup>. Horretarako, funtsezko osagarri bihurtu zen Mashreq edo *Dār al-Islām*eko ekialdeko lurretara bidaiari burutu izana, hango alfaqui adituenekin ikasteko aukera eduki zuela. Al Andalusetik urrun igarotako jardunaldiak hainbat urte iraun zezakeen, eta epealdi hura ikasten emateko adinako baliabide ekonomiko eduki behar zituen bidaiariak edo haren familiak. Beste aukeretako bat joan-etorriak zirauen bitartean merkatari aritzea zen, arlo akademiko eta ekonomikoak batera jorratuz. Arbasoak botere omeiatarretik oso hurbil kokatutako soldadu berbereak izaki, Yahyàk zenbait ondasun eduki omen zituen bere aitak administratutako eskualdeetan. Are gehiago, Gibraltarreko itsasartean merkatari-

---

<sup>31</sup> a.l. 290. or.

<sup>32</sup> Aguadé (1986: 60).

<sup>33</sup> Marín (1987: 94-95).

<sup>34</sup> Fierro (1997: 331).

<sup>35</sup> Marín (1987: 92).

<sup>36</sup> Fierro-ren (1995a: 52) esanetan, Yahyà b. Yahyàren antzinako senideak ez ziren Banū Layten esklaboak izango, *walā'* harremana Yahyàren ahaideak musulman bihurtzerakoan eratuko zela. Alta, ikertzaileak dio ustezko erlazio hura Yahyàk berak defendatutako alegiazko legitimitatea litzatekeela, haren leinua aurrerantzean *mawālī*en mailan egon zedin erdietsi zuela.

<sup>37</sup> Fierro (1997: 333).

<sup>38</sup> Marín (1985: 292-293).

<sup>39</sup> Fierro (1997: 328-329).

lanak gauzatu zituelako aukera aditzera eman da azkenaldian<sup>40</sup>. Alfaqui horren ondorengoek hark zabaldutako bideari jarraipena eman zioten; zenbaitek alderdi juridiko eta kulturala garatzen bazuten ere, beste batzuk eginkizun komertzialez arduratzen ziren<sup>41</sup>.

Algeciraseko gobernariaren semeak burututako bidaiari dagokionez, 1990eko hamarkadara arte historiografiak hauxe suposatu izan du: egun Egipto izenez ezagutzen dugun eremu geografikoan, Al Layt b. Sa'd eta Ibn al Qāsim maisuekin aritutakoan, Medinara abiatu zen. Azken horretan, Mālikekin ikasi eta haren ahotik *Muwatta'* idatzi zuen<sup>42</sup>. Dena den, 1997an M. Fierrok Yahyàren bizitza ezagutarazi zuten iturri idatziei buruzko ikerketa sakona aurrera eraman zuen. Filologoak, azterketa horri esker egindako artikuluan, ulema berbera soilik Egipton egonda zegoela zioen, eta honako eskualdean Ibn al Qāsimen eskolak jaso izan zituela. Hori dela-eta, Mālik eta Al Laytekin zeharkako harremana eduki zuen andalustarrak, eta egiptoarraren bidez barneratu zituen aipatutako azken bi alfaquien jakintzak. Bidaia amaitu ostean, Yahyà Iberiar Penintsula musulmanera itzuli zen, Al Hakam I.aren emirraldian zehar. Han, Banū Layten leinuko juristak *Muwatta'*ren aldaki bat izan bazuen ere, Mālikengandik zuzenki bereganatu ez zuela dio Fierro arabistak<sup>43</sup>.

Zuzenbide islamikoari dagokionez, IX. mendearen lehen erdialdean iturrien hierarkizazioa adostu gabe zegoen. *Sunnaren* kasuan, esate baterako, aipagarria litzateke ahozko kontaketatik bildua izan zela, zeintzuk sasoi hartan idazkietara igaro baitziren. Kontaketa bakoitzari *hadīt* (pl. *ahādīt*) zeritzon eta *isnād* 'igorleen kate' bat eduki ohi zuen harekin batera, kronologikoki gertuen zegoen kontalariarengandik Mahomarenganaino Horrenbestez, *hadīt* hartan adierazitakoa benetan profetak egin edo esandakoa zela egiazta zitekeen<sup>44</sup>. Beste alde batetik, *Muwatta'* Māliken esanez osatutako liburua litzateke, non Medinan praktikan jarritako tradizio juridikoa jasotzen baitzen<sup>45</sup>. Izan ere, idazlana hiri santu horretako *sunnaren* ordezkari bezala aztertua izan zen IX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera, Mahomak kokaleku horretan hasiera eman baitzion praktika juridiko musulmanari. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da VIII. mendearen bukaeran gauzatutako lana zela, ondoko mendean eratutako arauak errespetatzen ez zituena. Beraz, Māliken liburua *ahādīten* bilduma zela esan zitekeen, betiere kontaketa hauen benetakotasuna aztertzeko arazoak egongo zirela onartuta<sup>46</sup>.

<sup>40</sup> a.l. (280-282). Fierroren men eginez gero, oso posiblea litzateke Yahyà Afrikako zilarren salerosketetan irabaziak eskuratu izana, metal hura emirerriko txanpon omeiatarraren ezinbesteko lehengaia baitzen.

<sup>41</sup> Marín (1985: 295-297).

<sup>42</sup> Marín (1980: 186-187).

<sup>43</sup> Fierro (1997: 330).

<sup>44</sup> Martos (2004: 75-77).

<sup>45</sup> Bosworth *et al.* (1991: 263).

<sup>46</sup> Fierro (1991: 128).

Zentzu horretan, Yahyà Māliken ezagutzen zabalzaileetako bat izan zen Al Andalusen, Medinako ulemaren liburua baitzeukan. Hala eta guztiz ere, alfaqui berbereak ez zion hainbesteko erabilera eman idazlanari, ez baizen *sunnan* espezialista. IX. mendearen bigarren erdialdera arte, hain zuzen, *fiqh*aren eta *hadī*taren ikasketak jakintzagai erabat banandu bezala aztertzen ziren<sup>47</sup>. Ulema andalustarraren helburua auzi juridikoei erantzuna ematea zen, bere *ra'ya* edo haren maisuen iritzi pertsonalari jarraituz<sup>48</sup>. Horretarako, erantzun juridikoen bildumetara zuzendu ohi ziren, Koranaren eta *sunnaren* erabilera bigarren maila batean geldituz.

Aipatu dugun moduan, jurista berbera ez zen errebeleko erreboltan parte-hartzailea izan, baizik eta 805eko gorteko konspirazioan. Hori dela-eta, Al Hakam I.aren agintaldian Yahyà gobernu omeiatarrarekin elkarlanean aritu zela azpimarra daiteke. Botere-aldaketaren saiakerarekin, ostera, Kordobatik ihes egin behar izan zuenez, Toledon onartua izan zen. Azkenik, Al Andaluseko hiriburura itzultzeko aukera eskaini zion emirrak, eta alfaquiak omeiatarrari men egin zion<sup>49</sup>.

### III.2.- *Abd ar Rahmān II.a (822-852). Abbasien eredu administratiboaren isla*

Hurrengo emirraldian, kohesio soziopolitikoa Al Hakam I.aren bano askoz sendoagoa izan zen. Izan ere, gobernari horren seme zen Abd ar Rahmān II.ak estatu-egitura zentralizatuagoa eratu zuen, Kordobaren garrantzi politiko eta demografikoa handitzen zihoan heinean. Esate baterako, botere zentralaren ordezkartza sendotu egin zuen probintzietan<sup>50</sup>, presio fiskala Al Andaluseko eremu guztietara hedatuz. Azken finean, honako aldaketek hauxe suposatzen zuten: «La introducción de un modelo administrativo de corte ‘abbāsī»<sup>51</sup>.

IX. mendearen erdialdean, giro hiritarraren islamiarpena sakondu egin zen, batez ere Kordoba bezalako ezarpen handietan, non hirira heldutako indigenen ondorengo anitz musulman bihurtarazi baitzituzten. Ondorioz, alfaquiek gortean eduki zuten presentzia aurreko emirraldietan baino askoz handiagoa izan zen, subirano omeiatarrak bere legitimitate erlijiosoareta eta gehiago azpimarratu behar baitzuen. Testuinguru berri horretan, Yahyàren eragina askoz gehiago nabaritu zen emirrarengan, haren aholkulari pertsonala bihurtu zen eta. Besteak beste, Kordobako epailea hautatu ohi zuen, baina bere burua ez zuen inoiz *qādī al-ŷamā'a* izendatu. Baliteke horrelako eskumena *mawālī*en esku ez egotea oraindik garai horretan, eta arabiar jatorri zuzenekoek soilik bete ahal izatea horrelako karguak. Halaber, berbera ez zen emirren aholkulari

<sup>47</sup> a.l. 129. or.

<sup>48</sup> Fierro (1997: 334-335).

<sup>49</sup> a.l. 292. or

<sup>50</sup> Meouak (1999: 231).

<sup>51</sup> Acién, Vallejo (1998: 117).

bakarra, ‘Abd al Malik b. Habīb (852an hila)<sup>52</sup> ulemak ere kontseilu ematen baitzion. Horrenbestez, Yahyàren boterea gortean ez zen historiografia tradizionalak aipatu bezainbestekoa izan, haren ospearen igoera testuinguru soziopolitikoaren aldaketarekin zerikusi zuzena izan zuen<sup>53</sup>.

Ibn Habīben garapen akademikoa Yahyàren parekoa izan zen, Egipton Ibn al Qāsimekin ikasi baitzuen hark ere. IX. mendearen erdialdean bere lanak nolabaiteko garrantzia eduki zuen, *Muwatta’ri* buruzko iruzkina idatzi zuelako, *al-Wādiha* deitutakoa<sup>54</sup>. Esanak esan, *ra’yaren* jarraitzaile moduan aurkez dezakegu. Al Andalusera itzultzean, gorte omeiatarrean barneratu zen, baina alfaqui berberearekin aliatu ordez, azken horren presio-taldea deuseztatu eta bere sare propioa eratu zuen<sup>55</sup>, Yahyàren eragina txikiaraziz.

### ***III.3.- Muhammad I.a (852-886), Al Mundir (886-888) eta Abd Allāh (888-912). Zentralismotik fitnara***

Bosgarren emir andalustarrak bere aitak utzitako estatu-egitura sendoa jarauntsi zuen, hasiera batean Muhammad I.aren agintaldiak Abd ar Rahmān II.arenaren bideari jarraituz. Nolanahi ere, 870eko hamarkadan lehen matxinada nabarmenak piztu ziren Iberiar Penintsula musulmanean, eta bi bosturtekoren ondoren Al Andaluseko lehen *fitna* (880-928) edo guda zibila hasia zegoen. Ondoko bi gobernari andalustarrekin, hots, Al Mundir eta ‘Abd Allāhrekin, egoerak okerrera jo zuen soilik<sup>56</sup>. Izan ere, ezegonkortasun soziopolitiko bere une gorenean egon zen garaian, emirerri omeiatarren eskumenak Kordoba eta haren inguramenera mugatu ziren. Dena den, Muhammad I.a Estatu kohesionatu baten buru bihurtu zen 852an, eta hau da, hain zuzen, eskola juridiko desberdinak eratzen hasi ziren aldia.

#### ***III.3.1.- Ahl al hadīth ‘hadītaren jendea’***

Mashreqen, Al Šāfi’ī (820an hila) tradiziozaleak zuzenbide islamikorako iturrien behin betiko mailaketa gauzatu zuen IX. mendearen hasieran. Lehenago ikusi dugunez, Korana eta *ahādīthak* lehen bi tokietan kokatuko lirateke, haren tradiziozaletasuna *sunna* edo tradizio juridikoaren jarraitzaile izatearen zentzuan ulertu behar dela<sup>57</sup>. Hori dela-eta, *ra’yaren* erabilera erabat mugatu zuen hierarkia berriak<sup>58</sup>. Gorputz teoriko horrek šāfi’ī eskola juridikoa osatu zuen, Bagdad eta Egipton hedapen handia edukiz mende horretan zehar.

<sup>52</sup> Marín (1987: 92).

<sup>53</sup> Fierro (1997: 331-332).

<sup>54</sup> Bosworth *et al.* (1991: 263).

<sup>55</sup> López Ortiz (1930: 68-69).

<sup>56</sup> Guichard (1995: 52-61).

<sup>57</sup> Martos (2004: 83).

<sup>58</sup> Martos (2008: 438).

Ulema andalustarrei so eginez gero, Qāsim b. Muhammad b. Sayyār (891n hila)<sup>59</sup> lehena litzateke Al Šāfi'īren ideiak Iberiar Penintsula musulmanean zabaltzen. Kordoban jaiotakoa, haren familiak jatorri indigena zuen. Hala ere, estatu juridikoari dagokionez *mawlā* litzateke, leinu omeiatarren klientea, alegia. *Dār al-Islāme*ko ekialdeko eremuan zehar abiatu zen, *ahādīten* bilduma kanonikoa ikasiz. *Sunnan* aditua izateaz gain, *fiqhean* ere jantzia zen. Zuzenbide islamikoan hain gaitua izanik, Muhammad I.ak bere notario izendatu zuen bere emirraldi osoan zehar<sup>60</sup>.

šāfi'ī eskolaren Al Andaluseko aitzindaria Qāsim bazen ere, Mashreqeko tradiziozalearen praktika juridikoaren zabaltzaile nagusia Baqī b. Majlad (889an hila)<sup>61</sup> izan zen. Besteak beste, *Kitāb al-fiqh* zeritzon Al Šāfi'īren lana Iberiar Penintsula musulmanean barneratu zuen<sup>62</sup>. Baqīren arbasoei adituz gero, haren aitak jurisprudenzia ikasi zuen, emirerri omeiatarretik at abiatuz jakintza horien bila. Lurralde musulmaneko ekialdeko aldean jardun ostean, sorterrira itzuli zen Abd ar Rahmān II.aren agintaldian, eta Rayyoko *qādīa* bihurtu<sup>63</sup>. Semeak bere ahaideak *mawālī* zirela aldarrikatzen zuen, baina familiaren izendapenean ez zen hitz arabiarrik mantendu *walā'* harremana Jaengo emakume arabiar batekin adostu baitzuten<sup>64</sup>.

Hasiera batean, Baqī b. Majladek Al Andalusen jaso zituen *fiqharen* inguruko lehen ezagutzak Yahyā b. Yahyāren eskutik; jarraian Egipton, Penintsula Arabiarrean, Ekialde Hurbilean eta Bagdaden ikasi zuen hainbat urtetan zehar<sup>65</sup>. Bertan, Al Šāfi'īren jarraitzaileekin solas egin zuen, baita Ahmad b. Hanbal tradiziozalearekin ere, hanbalī eskola juridikoaren sortzailea, alegia. Baqīk Māliken planteamenduak sakonki ezagutu zituen, nahiz eta *hadītean* espezializatu zuen bere burua<sup>66</sup>, Iberiar Penintsularako itzulera azken horren jakintzei lehentasuna emanez.

IX. mendearen erdialdeko Al Andalusen, dena den, jurista gehienek alfaquien *ra'ya* erabiltzen zuten, Korana eta *sunnan* oso heziak ez zirela. Hori dela-eta, Baqī azken biak emirerri omeiatarrean irakasten hasi zenean, *ahl al-ra'y* edo iritzi pertsonalaren jarraitzaileek euren kexa aurkeztu zuten emirraren aurrean, tradiziozaleek liburu polemikoak erabiltzen zituztelakoan<sup>67</sup>. Al Šāfi'īren aurkari sutsuenen artean, 'Ubayd Allāh eta Asbag b. Jalīl ulema ospetsuak zeuden. Nolanahi ere, Muhammad I.ak Baqīren aldeko jarrera erakutsi zuen, hark eta haren ideiek gortean zeukaten eragina argi

<sup>59</sup> Marín (1987: 92).

<sup>60</sup> Marín (1980: 190-191).

<sup>61</sup> Marín (1987: 92).

<sup>62</sup> Marín (1980: 202).

<sup>63</sup> a.l. 173. or.

<sup>64</sup> Fierro-k (1995a: 49) dioenez, Baqīren estatutu juridikoa ez zen *mawlā* izango, baizik eta Iberiar Penintsulako indigenen ondorengo soila. Horren zioz, alfaquiaren aldarrikapena arabiarren klientea izateko saiakera bat baino ez zen, hori argudiatzeko emakume arabiarrekiko ustezko harremana erabiliz. Izan ere, abizenen oinordekotasuna gizonaren aletik gauzatzen da, emakumearen abizena galduz.

<sup>65</sup> Marín (1980: 166).

<sup>66</sup> a.l. 201. or.

<sup>67</sup> Fernández (2003: 496).

geratuz. Tradiziozale horren aholkulari-lana oraindik gardenago azaldu zen Al Mundirren agintaldian, emir horrek Kordobako *qādī*a izan zedin eskaini baitzion. Baqīk, aldiz, aukerari uko egin zion eta, horren orde, berak aurkeztutako hautagaia eskaini zion subirano omeiatarrari, zeinak juristaren proposamena onartu egin zuen<sup>68</sup>.

### III.3.2.- Ahl al ra'y 'ra'yaren jendea'

Praktika juridikoan ulemen iritzi pertsonalaz baliatzen ziren alfaquien artean, Asbag b. Jalīlen (886an hila)<sup>69</sup> garrantzia aipagarria litzateke. Hiriburu andalustarrear jaio zen, non Yahyà b. Yahyàren dizipulu aritu baitzen. Ondoren, Egipto eta Ifrīqiyān eman zituen denboraldi bana, bigarrenean Sahnūn maisuarekin ikasiz. Harengandik Mālik eta Ibn al Qāsīmen planteamenduak jaso zituen, eta azken horren *hadī*taren gaitzespena<sup>70</sup> bere egin zuen. Hain zuzen ere, Asbagen arreta osoa *ra'y*era zuzendu zen<sup>71</sup>. Horrenbestez, *ahl al-hadī*tak erabilitako iturri juridikoen hierarkizazioaren kontrako jarrera izan zuen.

'Ubayd Allāh b. Yahyà (909 edo 910ean hila)<sup>72</sup>, hau da, Yahyàren semea, IX. mendearen bigarren erdialdeko ulema ospetsuenetako bat izan zen. Berberearen garapen akademikoari so eginez gero, bere aitarekin jardun zen Mashreqera bidaiatu aurretik. Alfaquiaren joan-etorria Egipto eta Bagdadetik igaro zen, ikasketak merkataritza-harremanekin batera jorratuz. Hain zuzen ere, hark bultzatutako merkatarī-lana asko azpimarratzen da iturri idatzietan, Al Andalusen lurjabe oparoa omen zela planteatuz<sup>73</sup>. Justiziaren administrazio omeiatarrean karguren bat ere bete zuen, hala nola *mušāwar* izatearena<sup>74</sup>. Arlo juridikoari dagokionez, haren helburu bakarra *fiqh*aren ezagutza litzateke, *hadī*tarekiko interesik ez zeukala. Horrek Baqīrekin harreman okerra izatera eramane zuen.

Muhammad I.aren emirraldian lan egin zuen eragin handieneko alfaquia ez zen bi horietako inor izan, Muhammad b. Ahmad al 'Utbī (868 edo 869an hila)<sup>75</sup> baizik. Kordoban jaiotakoa, haren familiak klientela-harremana eratua zuen leinu arabiar batekin<sup>76</sup>. Hiriburuan Yahyà b. Yahyà eta 'Abd al Malik b. Habīben eskolak jaso zituen<sup>77</sup>, eta, ostean, Sahnūnekin ikasi zuen, Ifrīqiyān, alegia. Al Andaluserako bueltan, *mušāwar* moduan aritu zen<sup>78</sup>, bere idazlan garrantzitsuena idazten zuen bitartean:

<sup>68</sup> Marín (1980: 168-170, 203).

<sup>69</sup> Marín (1987: 92).

<sup>70</sup> Fierro (1991: 129).

<sup>71</sup> Marín (1980: 188-189).

<sup>72</sup> Marín (1987: 93).

<sup>73</sup> Marín-en (1985: 298) artikuluarī men eginez gero, hainbat errotetako zerga bereganatzen zuen.

<sup>74</sup> a.l. 297.-300. or.

<sup>75</sup> Marín (1987: 92).

<sup>76</sup> Fernández (2003: 19).

<sup>77</sup> Bosworth *et al.* (1991: 263).

<sup>78</sup> Fernández (2003: 493).

*Mustajraʿa* edo *al-ʿUtbīyya*<sup>79</sup>. Auzi juridikoen bilduma izaki, geroago mālikismoa izango zen eskola juridikoaren iturri nagusiak jaso zituen, hots, Mālik, Ibn al Qāsim eta Sahnūnen ezagutzak integratu zituen<sup>80</sup>. Ondorioz, alfaqui aipagarrien iritzi pertsonala kontuan hartzen zuen lan gisa erabilia izan zen, IX. mendearen bigarren erdialdean hedapen handia izanik *ahl al-raʿya*ren artean. Azken horien arteko talde-identifikazio sentimendua handitu egin zen denbora aurrera zihoan ahala, tradiziozaleek, esate baterako, Qāsim b. Muhammadek, Koranari eta *sunna*ri erabateko garrantzia ematen zieten idazkiak zabaltzen zituzten heinean<sup>81</sup>.

Emirerri andalustarraren bukaeran Al ʿUtbīren jakintzak Iberiar Penintsula musulmanean zabal zitezen, ezinbestekoa izan zen Muhammad b. ʿUmar b. Lubāba (926an hila) alfaquiaren jarduera, aurrekoa bere maisua izanik. Jaioterria, kasu honetan ere, Kordoban kokatzen zen. ʿAbd Allāh omeiatarraren agintaldian *mušāwar* izandako jurista hau ez zen *hadīte*an oso trebea, eta haren ezagutzak *raʿya* mugatzen ziren. Izan ere, aipagarria da *Dār al-Islāme*an zehar bidaiarik egin ez izana, haren prestakuntza osoa Al Andalusen jaso zuela. Hori dela-eta, Lubābaren garrantzia X. mendearen hasieran *Mustajraʿa*ren igorle izatean aurki genezake<sup>82</sup>. Nolanahi ere, garai honetan *sunna* konkretu baten ikaskuntzak gero eta presentzia nabarmenagoa eskuratu zuen *raʿya*ren jendearen artean.

### III.3.3.- mālikī eskola juridikoaren gorpuztea

Ikasle kopuruari men eginez gero, IX. mendeko lurralde andalustarrean eragin gehien eduki zuen ulema Muhammad b. Waddāh (900ean hila)<sup>83</sup> izan zen. Haren nortasun juridikoari adituz gero, Kordobako *mawla* litzateke, aitona ʿAbd ar Rahmān I.aren kliente bihurtu zenetik. Hasiera batean, Iberiar Penintsula musulmanean Yahyā b. Yahyā<sup>84</sup> eta ʿAbd al Malik b. Habīb eduki zituen maisu. Jarraian, Ifrīqīyan, Egipto, Ekialde Hurbilean eta Bagdaden jardun zen aldi horretako tradiziozale adituenekin, besteak beste, Al Šāfiʿīren jarraitzaileekin eta Ahmad b. Hanbalekin. Horrenbestez, Magreb aldean *hadīta* gaitzesten zuten hainbat alfaquirekin egondakoa bazen ere, Sahnūnekin adibidez, tradizioaren ikerketan aditu bihurtu zen, *raʿya*ren oinarritutako auzi juridikoen bildumak alboratuz<sup>85</sup>.

Al Andaluserako bueltan, Ibn Waddāh ulemak *hadīte*aren ezagutza bultzatu zuen hein handi batean. Horren irakasketa, dena den, *ahl al-raʿya*ren iturriak kontuan hartuta burutu zuen, Mālikien lana batik bat. Tradiziozale kordobarraren aburuz, *Muwattaʿ* k Medinako *sunna* jasotzen zuen bere orrialdeetan zehar, hori izanez jurista andalustarrek

<sup>79</sup> Fernández, Fierro (2000: 415-416).

<sup>80</sup> Fernández (2003: 365-367).

<sup>81</sup> a.l. 495.-498. or.

<sup>82</sup> a.l. 47.-48. or.

<sup>83</sup> Marín (1987: 93).

<sup>84</sup> Fierro (1997: 308).

<sup>85</sup> Marín (1980: 189-190).



aplikatu beharko zuketena *ahādīten* bilduma<sup>86</sup>. *ra'yaren* jarraitzaileek epe motzean honako proposamena erabat deuseztatu bazuten ere, pixkanaka legitimitate juridikorako funtsezko elementu bihurtzen joan zen Iberiar Penintsula musulmanean. Hain zuzen ere, *Muwatta'*ren birbalioztapena mālikī eskola juridiko andalustarraren eratze-prozesuaren azken osagaitzat har genezake<sup>87</sup>.

Mālikismoa, ikusi dugunez, IX. mendearen bukaeran gorpuztu zen, «de la interacción entre los *ahl al-ra'y* y los *ahl al-hadīt*»<sup>88</sup>; hurrengo mendean edukiko zituen ezaugarri nagusiak garai hartan finkatu ziren. Horrenbestez, historiografia tradizionalaren proposamena, zeinak Al Andaluseko IX. mendeko ulemen ordezkariak mālikī eskola juridikoak zeukala ziurtatzen baitzuen, bertan behera gelditu da egun. Zentzu horretan, Manuela Marín arabistak 1987an gauzatutako lanak nolabaiteko garrantzia izan zuen, 912. urtera arte hildako juristek eduki zituzten dizipuluen kopurua kalkulatzeko baitu<sup>89</sup>. Emaitzek testuinguru argia erakusten dute: IX. mendearen bigarren erdialdean Iberiar Penintsula musulmanean zeuden bi tradiziozale ezagunenak izan ziren ikasle gehien izan zuten bi ulemak, Ibn Waddāh bereziki, baita Baqī b. Majlad ere. Lehena bigarrenaren zenbatekoa hirukoiztetik hurbil geratuko litzateke, epealdi horretan Muhammad b. Waddāhen planteamenduak izan zuen hedapenaren adierazgarria izaki. Bi horien jarraian, ‘Ubayd Allāh eta bere aita zeuden, *Muwatta'*ren igorleek mende osoan zehar izandako presentzia islatuz (ikusi 1. taula).

<i>Maisuak</i>	<i>Dizipulu kopurua</i>
<b>Muhammad b. Waddāh</b>	216
<b>Baqī b. Majlad</b>	85
<b>‘Ubayd Allāh b. Yahyà</b>	79
<b>Yahyà b. Yahyà al Laytī</b>	58
<b>Muhammad b. Ahmad al ‘Utbī</b>	46
<b>‘Abd al Malik b. Habīb</b>	43
<b>Qāsim b. Muhammad b. Sappār</b>	18
<b>Asbag b. Jalīl</b>	13

1. taula<sup>90</sup>

Emirerri omeiatarrean klase juridikoak ematen ziren kokalekuei dagokienez, hiriburu andalustarrak erabateko lehentasuna zeukan. Iberiar Penintsulako islamiarpenaren erdigunea izaki, Kordoban emirrak modu zuzenago batean kontrolatzen

<sup>86</sup> Fierro (1997: 309).

<sup>87</sup> Fierro (1991: 130).

<sup>88</sup> Fierro (1995b: 242-243).

<sup>89</sup> Marín (1987: 89).

<sup>90</sup> a.l. 93.-94. or.

zituen alfaquiak, administrazioan oso azkar integratu zituela. Al Andaluseko beste eskualdeetan ere arlo juridikoaz arduratzen ziren hainbat aditu agertu ziren<sup>91</sup>, baina bigarren maila batean mantenduz hasieratik. Are gehiago, botere zentraletik urrun garatutako alfaquiek Kordoban jarraitu ohi zituzten beren ikasketak<sup>92</sup>. Hori dela-eta, orain arte aztertu ditugun ulemak aipatutako hirian jaiok edo heziak izan ziren.

Behin hiriburua abandonatuta, jurista askok tokian tokiko maisu jakintsuenekin solas egiteko aprobetxatu ohi zuten erromesaldia. X. mendeko Iberiar Penintsula musulmanean, mālikismoa omeiatarren eskola juridiko ofiziala izatearen arrazoietako bat alderdi geografiko honi leporatu ohi zaio<sup>93</sup>. Hain zuzen ere, Abdel Magid Turki eta Jorge Aguadéren arabera, Mekarako bidean Māliken jarraitzaile ugarirekin aurkituko ziren ulema andalustarrak, Ifrīqiya, Egipto eta Medinan barrena<sup>94</sup>. IX. mendean zehar suertatutako garapen juridikoa, ostera, ez litzateke alde batean utzi beharko<sup>95</sup>.

Kasu gehienetan hainbat urtetan luzatzen zen bidaia hura martxan jarri ahal izateko, egoera ekonomiko erosoan eduki behar zen. Hori dela medio, alfaquiak giro hiritarrean bizi ziren merkatari, artisau edo administrazioko langileez osatutako familien parte izan ohi ziren<sup>96</sup>. Nortasun etnikoari so eginez gero, IX. mendearen lehen erdialdean juristen gehiengoa arabiar leinu eta *walā'* harremanetatik zetorren, konkistatzaileen elitearekiko erlazio zuzena eraturik zegoela. Mende horren bigarren erdialdean, ordea, gizarte-aldaketa sakonak jaso zituen Al Andalusek, batik bat hirietan abiarazitako islamiarpenak aukera eman baitzuen jatorri indigenako juristen zenbatekoa azkar igo zedin. Horrelako testuinguru sozial berrian, Baqī b. Majlad maisuaren jarduera azpimarra zitekeen: IX. mendearen azken herenean hildako ulema hau indigenen ondorengoa zen, *mawlā* izatearen aldarrikapena asmatua zela ezagutuko zutela haren dizipuluek. Nolanahi ere, IX. mendean zehar ikasle gehien eduki zuen bigarren jurista izan zen, irakaslea hautatzeko orduan haren nortasun juridikoa ez zen izan eragile erabakigarririk.

Ibn Hārīt al Jušanī (971n hila) biografoaren ikerketak informazio argigarria eskaini dezakeen, bere garaira arteko alfaqui andalustarren bizitza aztertu baitzuen<sup>97</sup>. Hark zioenez, adituen erdiak jatorri indigena edukiko zuen, arabiarrek hamarretik hiruk

<sup>91</sup> Marín (1997: 160-161).

<sup>92</sup> Marín (1987: 96).

<sup>93</sup> Turki (1971: 48).

<sup>94</sup> Aguadé (1986: 61).

<sup>95</sup> IX. mendearen bukaeran, hots, mālikī eskola juridikoa Al Andalusen egonkortu zen garaian, Egipto eta Penintsula Arabiarrean tradiziozaleak berrikuntza handiak gauzatzen ari ziren. Dena dela, IX. mendearen erdialdean, zeinean Mediterraneoko kostalde musulmana Māliken adituz hornituta zegoen, emirerri andalustarrean *madhab* desberdinen arteko banaketak egin gabe zirauen. Ondorioz, mendearen amaieran Iberiar Penintsula musulmanean *hadītean* jantziek burututako eragina funtsezkoa izan omen zen Mālik buru zuen eskola juridikoaren parte izatearen kontzientzia hartzeko orduan. Ordura arte, *ra'ya* zerabilten maisu multzoaren jarraitzaile izango ziren, Medinako alfaquia horietako bat izanik soilik (Fierro, 1997: 337).

<sup>96</sup> Marín (1997: 156).

<sup>97</sup> Fierro (1995a: 41).

osatzen zutela. Esanak esan, klientela-harremana zeukaten indigena edo berberearen kopurua oso murrizta litzateke, ulemen hamarrena bakarrik (ikus 2. taula). Izan ere, *mawālī* taldea ahalik eta itxien izan zedin nahi zuten klienteek, *walā* 'k arlo juridikoan eskaintzen zituen gaitasunak zirela-eta<sup>98</sup>. Modu horretan, IX. mendearen bukaeran eta X. mendearen lehen erdialdean jurista gehienak nortasun juridiko berezirik gabeko familia indigenetako kideak ziren.

<i>Alfaquien familien jatorria</i>	<i>Zenbatekoa ehunekotan (%)</i>
<b>Indigena</b>	47,2
<b>Arabiarra</b>	30,2
<i>mawālī</i>	8,7
<b>Berberea</b>	1,5
<b>Ezezaguna</b>	8,5

2. Taula<sup>99</sup>

Ulemen lanbideei dagokienez, hasiera batean gorte omeiatarra zerbitzatzen zuten administrari zibil edo soldaduek antolatu zuten jurisprudenzia. IX. mendea aurrera zihoan ahala, aldiz, jurista gehiago eta espezializazio maila handiagokoak behar ziren, giro hiritarraren islamiarpena sakontzen zen neurrian. Hainbat merkataritxi eta artisauk *fiqh*aren inguruan zituzten ezagutzak zabaldu eta euren ogibide moduan erabili zuten, jarduera horri pixkanaka lehentasuna emanez. Hortaz, jurisprudenziaren adituek euren eguneroko zereginen alderdi hura profesionalizatu zuten, beren ondorengoak gainontzeko alfaquien parean ezarri zirela<sup>100</sup>. Garapen hura onomastika arabiarri adituz gero azter zitekeen, M. Marínek 1995ean ulema andalustarren ezizenekin egin zuen bezala. Izan ere, ikertutako juristen laurdenak merkataritzako edo artisautzako lanbide bati aipua egiten zion *laqaba* 'ezizena'<sup>101</sup> zeukan, eta pertsona berak edo haren arbasoetako batek izendatutako jardueran lan egingo zuen<sup>102</sup>. Arlo akademiko eta ekonomikoen aldibereko jorrapenak jarraitu zuen X. mendean, 904an hautatua izan zen Kordobako *qādī* nazioarteko salerosketetan trebatua zen eta, beste epaile batek eskaintako finantza-laguntzaren ondoren<sup>103</sup>.

#### ***III.4.- 'Abd ar Rahmān III.a (912-961). Guda zibilaren amaiera, kalifaldiaren hasiera***

<sup>98</sup> Fierro (1995b: 233-235).

<sup>99</sup> Fierro (1995a: 42-43).

<sup>100</sup> Marín (1997: 158-159).

<sup>101</sup> Maillo (1999: 176).

<sup>102</sup> Marín (1995: 377-382).

<sup>103</sup> Constable (1996: 88-89).

Al Andaluseko azken emir omeiatarra ‘Abd ar Rahmān III.a izan zen, lehen *fitna* buka zedin erdietsi zuena, alegia. Garaipen horrekin batera, bere burua kalifa aldarrikatu zuen 929. urtean, Kordobako kalifaldiari hasiera emanaz. Hori dela-eta, Iberiar Penintsula musulmanean zegoen estatu-egiturak erabateko legitimitate erlijiosoa lortu zuen, jada zeukan independentzia politikoaz gain<sup>104</sup>.

Agintaldi horretan zehar, mālikismoa erregimen omeiatarren doktrina ofiziala bihurtu zen<sup>105</sup>, burututako erreforma politikoek batasunerako eta homogeneousunerako diskurtsoa eskatzen baitzuten. Kalifaldiaren hastapenetan, Ibn Masarrak bultzatutako mugimendu mistikoak nolabaiteko hedapena izan zuen lurralde andalustarrean<sup>106</sup> eta gobernari omeiatarrek testuinguru horretan gauzatu zuen mālikī eskola juridikoaren eginkizun berriaren jakinarazpena, mugimendu aszetikoaren kontra eginez. Orduetik aurrera, Medinako alfaquiaren jarraitzaileen *madhabak* erabateko lehentasuna eduki zuen šāfīī eta hanbalī eskolen aurrean; tradiziozaleek IX. mendearen bigarren erdialdean eta X. mendearen hasieran izandako presentzia juridikoa izugarria izan bazen ere, X. mendearen bigarren herenak eragin horren amaiera ekarri zuen. Azken finean, errepresio bortitza baino gehiago, bigarren maila batean gelditu izana pairatu zuten bi eskola horiek<sup>107</sup>.

Mendebaldeko lehen kalifa omeiatarrek *Muwatta’* ‘Ubayd Allāhen eskutik ikasi zuen. Hain zuzen ere, azken horri Māliken idazlana bere aita Yahyà b. Yahyàk laga zion. ‘Abd ar Rahmān III.aren kalifaldian gorpuztu zen Yahyàren irudi berria, zeinaren esanetan berebera mālikismo andalustarren sortzailea izango baitzen<sup>108</sup>. Ondorengo kalifek ere *Muwatta’* irakurri zuten Yahyàren hurrengo ahaideekin batera, bi leinuen artean harreman sendoa eratuz<sup>109</sup>. Bereberaren familiaren zoria Al Andalusen ez zen salbuespena izango: Baqī b. Majladen ondorengoen artean jurisprudenzian adituak ziren ahaide anitz aurki zitezkeen, eta kalifaldi osoan zehar mantendu zuten betekizun hura<sup>110</sup>.

Aurreko bi adibideek alfaqui ezagunen familien kohesioa erakusten dute, eta giro hiritarrean nolabaiteko zuzendaritza burutzen zuen talde soziojuridikoaren parte izatearen kontzientzia izango zuten. Horren adierazgarri litzateke juristen leinuetako kideen arteko ezkontzak ugariak izatea. Azken finean, talde hori izan zen X. mendean zehar zirauen mālikismo ofizialaren zaindaria<sup>111</sup>. Eskola juridiko horrek *ahl al-ra’yak* Al Andalusen IX. mendean abiarazitako praktikak mantendu zituen, legitimaziorako

<sup>104</sup> Guichard (1995: 72).

<sup>105</sup> Fierro (1997: 309-310).

<sup>106</sup> Bosworth *et al.* (1991: 264).

<sup>107</sup> Fierro (2004: 71-72).

<sup>108</sup> Martínez-Gros (1992: 141).

<sup>109</sup> Marín (1985: 314-315).

<sup>110</sup> Marín (1980: 173-175).

<sup>111</sup> Martos (1996: 143).

diskurtso berriak jarduera horiek Koranarekin edota *ahādītekin* justifikatu zitezen eskatzen zuen arren<sup>112</sup>. Izan ere, horrelako justifikazioei esker lortu zuten praktika horien mantenua.

### Ondorioak

Aurrera eraman izan dugun azterketaren ostean, baieztatu daiteke IX. mendearen hasierako Al Andalusen eskola juridiko musulmanak eratu gabe zeudela. Horrenbestez, Yahyà bezalako alfaquiek hainbat maisurekin ikasitakoak zabaldu zituzten, eta mālikī eskolaren jarraitzaile izatearen kontzientzia beranduago helduko zen. Nortasun hura mendearen bigarren erdialdean garatzen joan zen, *ra'yaren* jendeak tradiziozaleek zekartzaten egiaztapen juridikorako teknika berriei erantzuna eman nahi izan zienean. Garai hartan, *hadītaren* eragina izugarria izan zen bai gortean bai zuzenbide musulmanean, ikasle gehien eduki zuten bi ulemak tradiziozaleak baitziren. Ondorioz, mendearen lehen erdialdeko praktikak mantentzen zitezkeen ezinbestekoa zen berauek *ahādītekin* justifikatzea, Mālikek ekarritako Medinako *sunnarekin*, alegia.

Juristen jatorri etnikoari adituz gero, lehendabizi konkistatzaileen ondorengoak ziren, hots, *mawālīak* eta arabiar leinuetakoak. Mende osoan zehar mantendu zen bi talde horien ospea, baina, hamarkadak igarotzen ziren heinean, beste faktore batzuei lehentasuna eman zitzaien alfaqui baten izaera deskribatzeko unean. Hain zuzen ere, X. mendearen hastapenetan ulema gehienak jatorri indigenakoak ziren. Konkistatzaileen familietatik at egoteak jada ez zeukan subiranotik urrun mantentzearen esanahia, ekoizpen juridikoa Kordoban, omeiatarren hiriburu administratiboan, errotua baitzegoen. Prozesu hau beste zentzu batean ulertzea komenigarriagoa ikusten dugu, giro hiritarraren islamiarpenak izan zuen arrakastaren adierazle argitzat har baitaiteke.

IX. mendean zehar, merkatari eta artisauen semeek gero eta presentzia handiagoa izan zuten jurisprudenzia islamikoan. Izan ere, haietako asko *fiqharen* ezagutzan espezializatu ziren, administrari zibil eta soldaduen ondorengoekin batera jorratu zutela arlo juridiko musulmana. Epealdi horren amaieran Al Andalus testuinguru ekonomiko dinamiko batean murgilduta zegoela dirudi, zeinean tratu komertzialetako parte-hartzaileek zuzenbide islamikoa egunerokoan zerabilten.

Bukatzeko, alfaquien leinu garrantzitsuenen arteko erlazioak azpimarratu nahi izan ditugu, gizarte andalustarrean nortasun propioa zeukan taldearen aurrean gaudela. Horri esker uler daiteke familia konkretuetako kideek omeiatarrekin harreman pribilegiatuak belaunaldi anitzetan zehar mantendu izana, sortutako eskola juridikoen ordezkari nagusiak bihurtu baitziren.

---

<sup>112</sup> Fierro (1991: 132).

**Bibliografía**

ACIÉN, M., VALLEJO, A. (1998): “Urbanismo y Estado islámico: de *Corduba* a *Qurtuba-Madīnat al-Zahrā*”, in P. CRESSIER, M. GARCÍA-ARENAL, *Genèse de la ville islamique en al-Andalus et au Maghreb occidental*, Casa de Velázquez & CSIC, Madril, 107-136.

AGUADÉ, J. (1986): “Some remarks about sectarian movements in al-Andalus”, *Studia Islamica*, **64**, 53-77.

BOSWORTH, C. E. *et al.* (1991): *Encyclopédie de l’Islam. Nouvelle édition*, E. J. Brill, Leiden, VI Mahk-Mid.

CHALMETA, P. (1990): “El nacimiento del Estado neo-omeya andalusí”, in *Homenaje a Manuel Ocaña Jiménez*, Kordobako Probintziako Aldundia, Kordoba, 95-106.

CONSTABLE, O. R. (1997): *Comercio y comerciantes en la España musulmana. La reordenación comercial de la Península Ibérica del 900 al 1500*, Ediciones Omega, Bartzelona.

DOZY, R., (1982): *Historia de los musulmanes de España II. Cristianos renegados*, Ediciones Turner, Madril.

FERNÁNDEZ, A. (2003): *Cuestiones legales del Islam temprano: la ‘Utbiyya y el proceso de formación de la sociedad islámica andalusí*, CSIC, Madril.

FERNÁNDEZ, A., FIERRO, M. (2000): “Cristianos y conversos al Islam en al-Andalus bajo los omeyas. Una aproximación al proceso de islamización a través de una fuente legal andalusí del s. III/IX”, in L. CABALLERO, P. MATEOS, *Visigodos y omeyas. Un debate entre la Antigüedad Tardía y la Alta Edad Media*, CSIC & Consorcio de la Ciudad Monumental de Mérida, Mérida, 415-417.

FIERRO, M. (1991): “El derecho māliki en al-Andalus: siglos II/VIII-V/XI”, *al-Qantara*, **12**, 119-132.

\_\_\_\_\_ (1995a): “Árabes, beréberes, muladíes y *mawālī*. Algunas reflexiones sobre los datos de los diccionarios biográficos andalusíes”, *Estudios onomástico-biográficos de Al-Andalus*, **7**, 41-54.

\_\_\_\_\_ (1995b): “Cuatro preguntas en torno a Ibn Hafsūn”, *al-Qantara*, **16**, 221-257.

\_\_\_\_\_ (1997): “El alfaquí beréber Yahyà b. Yahyà al-Laytī (m. 234/848), “el inteligente de al-Andalus””, *Estudios onomástico-biográficos de Al-Andalus*, **8**, 269-344.

\_\_\_\_\_ (2004): “Violencia, política y religión en al-Andalus durante el s. IV/X: el reinado de ‘Abd al-Rahmān III”, in *De muerte violenta. Política, religión y violencia en al-Andalus*, CSIC, Madril, 37-101.

GUICHARD, P. (1995): *La España musulmana. Al-Andalus omeya (siglos VIII-XI)*, Temas de Hoy, Madril.

LÉVI-PROVENÇAL, E. (1957): “España musulmana. Hasta la caída del Califato de Córdoba (711-1031 de J. C.)”, in R. MENÉNDEZ PIDAL, *Historia de España*, Espasa-Calpe, Madril, **IV**.

\_\_\_\_\_ (1965): “España musulmana. Hasta la caída del Califato de Córdoba (711-1031 de J. C.). Instituciones y vida social e intelectual”, in R. MENÉNDEZ PIDAL, *Historia de España*, Espasa-Calpe, Madril, **V**.

LÓPEZ, J. (1930): “La recepción de la escuela malequí en España”, *Anuario de Historia del Derecho Español*, **7**, 1-167.

MAÍLLO, F. (1999): *Vocabulario de historia árabe e islámica*, Ediciones Akal, Madril.

MANZANO, E. (1993): “El asentamiento y la organización de los ŷund-s sirios en al-Andalus”, *al-Qantara*, **14**, 327-359.

MARÍN, M. (1980): “Baqī b. Majlad y la introducción del estudio del *hadīt* en al-Andalus”, *al-Qantara*, **1**, 165-208.

\_\_\_\_\_ (1985): “Una familia de ulemas cordobeses: los Banū Abī ‘Īsà”, *al-Qantara*, **6**, 291-320.

\_\_\_\_\_ (1987): “La transmisión del saber en al-Andalus (hasta 300/912)”, *al-Qantara*, **8**, 87-97.

\_\_\_\_\_ (1995): “El oficio de la ciencia y otros oficios: en torno a la onomástica de los ulemas andalusíes”, *Estudios onomástico-biográficos de Al-Andalus*, **7**, 377-435.

\_\_\_\_\_ (1997): “Ulemas de al-Andalus”, *El saber en Al-Andalus: textos y estudios*, **1**, 151-161.

MARTÍNEZ-GROS, G. (1992): *L'idéologie omeyyade. La construction de la légitimité du Califat de Cordoue (Xe-XIe siècles)*, Casa de Velázquez, Madril.

MARTOS, J. (1996): “Características del muftí en Al-Andalus: contribución al estudio de una institución jurídica hispanomusulmana”, *Anaquel de Estudios Árabes*, **7**, 127-143.

\_\_\_\_\_ (2004): “Religión y derecho en el Islam: la Šarī‘a”, *Ilu. Revista de Ciencias de las Religiones. Anejos*, **11**, 69-88.

\_\_\_\_\_ (2008): “Islam y Derecho: Las escuelas jurídicas en al-Andalus”, *Arbor: Ciencia, pensamiento y cultura*, **731**, 433-442.

MEOUAK, M. (1999): *Pouvoir souverain, administration centrale et élites politiques dans l'Espagne umayyade (IIe-IVe/VIIIe-Xe siècles)*, Academia Scientiarum Fennica, Helsinki.

MONÈS, H. (1964): “Le role des hommes de religion dans l'histoire de l'Espagne musulmane jusqu'à la fin du Califat”, *Studia Islamica*, **20**, 47-88.

TURKI, A. M. (1971): “La vénération pour Mālik et la physionomie du mālikisme andalou”, *Studia Islamica*, **33**, 41-65.